

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

- **Ekoizpena:** Lehenik eta behin erositako lehengaiekin armairuaren piezak fabrikatzen hasiko gara. Horiek egin ondoren bezeroak eskatutakoaren arabera armairuak diseinatuko ditugu. Prozesua amaitzeko, bezeroak aukeratzen duen zerbitzuaren arabera jasoko du bere armairua, eta hau muntatua izango da.
- **Arazoak konpontzea:** Gure bezeroek edozein zalantza, konponketa edo aldaketarik behar izanez gero, iCloset enpresako langile guztiok prest gaude beraien beharrak asetzeko eta ongizatea bermatzeko. Gainera eskaintzen dugun garantiaren bidez, edozein ezusteko izanez gero, gurekin azkar kontaktatu eta segituan azalduko gara arazo hori ahalik eta azkarren konpontzen saiatzeko.
- **Sareko jarduerak:** Lehen esan dugun bezala, *on line* denda bat eskaintzen dugu. Bertan erosi ahal izateko, bezeroak web orrira sartu beharko dira ([www.icloset.eu](http://www.icloset.eu)) eta eskaintzen ditugun modelo ezberdinak begiratzeko eta aukeratzeko aukera izango dute. Hortaz, pertsonalizatu ahal izango dituzte beraien gustura eta behin aukera eginda, zuzenean produktua erosiko dute.